

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala****Boletín
Oficial de
Gipuzkoa****22**

2015eko otsailaren 4a, asteazkena

3**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

49/2015 FORU AGINDUA, otsailaren 2koa, 591 eredua, «Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Zergadunekin egindako eragiketen urteko aitortpena», eta 588 eredua, «Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Jarduera urtarriletik urrira bitartean eteteagatik aurkeztutako autolikidazioa» onartu, eta horiek nola eta zein epetan aurkeztu ezartzen duena.

Abenduaren 27ko 15/2012 Legeak, jasangarritasun energetikorako neurri fiskalei buruzkoak, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga berria sortu zuen 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Zerga hau zuzeneko tributu bat da, eta energia elektrikoa ekoizteko eta sistema elektrikora sartzeko jarduerak zergapetzen ditu.

Abenduaren 27ko 1041/2013 Errege Dekretuak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartutako zerga berezien erregelamendua aldatu eta fabrikazioaren gaineko zerga berezietan eta energia elektrikoaren produkzioaren balioaren gaineko zergari buruzko beste xedapen batzuk ezartzen dituenak, xedapen gehigarri bakarrean dio zerga honen zergadunei diru kopuruak ordaintzen dizkietenak behartuta daudela urteko aitortpen bat aurkeztuta zergadun horiekin egindako eragiketengatik.

Abenduaren 27ko 1041/2013 Errege Dekretuak xedapen gehigarri bakarraren 3. apartatuan ezartzen duenez, aitortpen hori bide telematikoan aurkeztu behar da, datuei dagokien urte naturala amaitu ondorengo abenduaren lehen hogeiei egun naturalen barruan.

Xedapen gehigarri bakarraren 4. apartatuan, abenduaren 27ko 1041/2013 Errege Dekretuak xedapen horretan ezarritakoa garatzeko ahalmena ematen dio Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroari.

Bestalde, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergan, izaera orokorrez aurreikusi da zergaren autolikidazioa zergapetutako eragiketarako egin diren urte naturala amaitu ondorengo arazoan aurkeztuko dela. Alabaina, erregela orokor horrek badu salbuespen bat, zergadunaren jarduera urtarriletik urrira bitartean eteten denean hain zuzen, horrelakoetan, jarduera eten den urte berean aurkeztu behar baita autolikidazioa. Bereizitasun horrek berekin ekarri du berriazko eredu bat sortzea autolikidazioa aurkezteko (588 eredu berria), eta eredu horrek, zergaren autolikidaziorako erabiltzen den eredu orokorraren ia berdina izanik ere (583 eredua), ahalbidetzen du eraginkortasun handiagoz jokatzeko zerga kudeatu eta kontrolatzeko, kostu gehiagorik eragin gabe zergadunarentzat, zeinaren betebeharrak lege mailako araudian zehaztuta baitaude.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen artikulua bakarraren bidez onartuak, 23 quater artikuluan ezartzen duenez, energia elektrikoaren produkzioaren balioaren gaineko zerga itundutako tributu bat da, estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatu behar dena.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, ahalmena izango dute aitorten eta ordainketa ereduak onartzeko eta likidazioaldi bakoitzeko ordainketa epeak zehazteko. Baina, eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ezin dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 591 eredua onartzea.

Bat. Onarturik geratzen da 591 eredua, «Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Zergadunekin egindako eragiketen urteko aitortzea» izenekoa, foru agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen dena.

Bi ale ditu ereduak: Administrazioaren alea eta aitortzailearentzat.

Bi. 591 eredua aurkeztearekin batera, fitxategi bat ere erantsiko da, foru agindu honen II. eranskinean jasotako eduki eta diseinuaren arabera.

2. artikulua. 591 eredua aurkeztera behartuak.

591 eredua aurkeztera behartuta daude pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak zein pribatuak izan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen diren entitateak, baldin eta energia elektrikoaren produkzioaren balioaren gaineko zergaren zergadunei diru kopuruak ordaintzen badizkiete energia elektronikoa ekoizteagatik edo hura sistema elektrikoan sartzeagatik.

3. artikulua. 591 eredua aurkezteko epeak.

Aitortutako datuen urte naturala zein den eta hurrengo urteko abenduaren lehen hogeita sei egun naturalen barruan aurkeztu behar da 591 eredua.

Eredua aurkezteko azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, epea hurrengo egun baliogabea izan da.

4. artikulua. 591 eredua aurkezteko era.

591 ereduaren aurkezpena transmisio elektronikoz egingo da, foru agindu honen I. eranskinean jasotako diseinua duen «pdf betegarria» internet bidez bidalita, eta, betiere, azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, ezarritako prozedurari jarraituz.

Era berean, 1. artikuluko bigarren apartatuan aipatzen den fitxategiak «pdf betegarria»ren diseinua bete beharko du.

1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko c) letran aipatzen diren pertsonak edo entitateek sinadura elektronikoa baliogabekoa erabiliz frogatu behar dute beren identitatea, betiere azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, 9. artikuluan eta haren

hurrengoetan xedatzen duen moduan.

Aitorpenen transmisio telematikoan akats formalak antzematen badira, sistemak berak haien berri emango dio aurkezleari, errore mezuak helaraziz, behar den eran zuzendu ditzan.

5. artikulua. 588 eredia onartzea.

Onarturik geratzen da 588 eredia, «Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Jarduera urtarriletik urrira bitartean eteteagatik aurkeztutako autolikidazioa» izenekoa, foru agindu honetan II. eranskin gisa jasotzen dena.

Bi ale ditu ereduak: Administrazioaren alea eta aitortzailearentzat.

6. artikulua. 588 eredia aurkeztera behartuak.

588 eredia aurkeztera behartuta daude pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak zein pribatuak izan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 35.3 artikuluan apatzen diren entitateak, baldin eta jasangarritasun energetikorako neurri fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen 4. artikuluan aipatzen diren jarduerak egin badituzte eta urtarriletik urrira bitartean instalazioaren jarduera eten badute.

7. artikulua. 588 eredia aurkezteko epea.

Instalazioaren jarduera eten den urte naturaleko arazoaren barruan aurkeztuko da 588 eredia.

8. artikulua. 588 eredia aurkezteko era.

Bat. 588 eredia paperean zein internet bidez aurkeztu daiteke, azken kasu horretan transmisio elektronikoa eginez, <https://www.gfaegoitza.net> helbidean kokatuta dagoen «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzuen ataria erabilita.

Bi. Eredua paperean aurkezteko, Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialean dagoen «pdf betegarria» erabili behar da, hura bete eta Administrazioaren eta aitortzailearen aleak inprimatu. Aurkezpena, eta ordaintzeko kuota ateraz gero, baita zenbatekoaren ordainketa ere, baimendutako entitate laguntzaileetako batean egingo da (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan), abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamendua onartzen duenak, xedatutakoaren arabera.

Autolikidazioak ordaintzeko emaitzarik ez duenean, aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan egin ahal izango da (Errotaburu pasealekua 2, 20018 Donostia).

Hiru. Aurkezpena transmisio elektronikoz (internet bidez) egiteko, azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Aitortzaileak, edo, halakorik bada, aurkezleak, lehen apartatuan aipatutako atarian kokatutako formularioaren datuak bete eta transmititu beharko ditu.

1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren zergapekoek beren identitatea frogatu behar dute dela sinadura elektronikoko balioztatuaren bitartez, dela pasahitz operatiboa erabilia, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen den irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko c) letran aipatzen diren pertsonak edo entitateek sinadura elektronikoko balioztatua erabiliz frogatu behar dute beren identitatea, betiere azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, 9. artikuluan eta haren hurrengoetan xedatzen duen moduan.

Aitorpenen transmisio telematikoa akats formalak antzematen badira, sistemak berak haien berri emango dio aurkezleari, errore mezuak helaraziz, behar den eran zuzendu ditzan.

9. artikulua. Bitarteko elektronikoz aurkeztutako 588 ereduaren diru sarrera egiteko era.

Bat. Bitarteko elektronikoz aurkeztutako 588 ereduaren autolikidazioei dagozkien ordainketak bankuan helbideratuz edo ordainketa-pasabidearen bitartez egin ahal izango dira.

Bi. Banku batean helbideratuz gero, ordainketa kargatuko da zergadunak autolikidazioan adierazten duen kontuan, zeinak haren izenean irekita egon behar baitu zergak biltzeko baimenduta dagoen entitate laguntzaile batean. Ondorio horietarako, aplikatuko da Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 30. artikuluan xedatutakoa.

Hiru. Diru-sarrera egiteko ordainketa-pasabidea erabiltzen bada, kontuan hartuko da abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduak ezartzen duen prozedura. Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko diru-sarrerak ordainketa-pasabidearen bitartez ordaintzeko era arautzen da foru agindu horretan. Autolikidazioa ongi transmititutakoan egin ahal izango da diru sarrera.

Ordainketa-pasabidea erabilia ere, autolikidazioak aurkezten direnean nahitaezkoa da helbideratze kontuaren datuak betetzea.

Lau. Zergapekoak ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatu nahi badu martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorak, 64. artikuluan eta abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zerga-bilketa Erregelamenduaren 36. artikuluetan eta haren hurrengoetan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora jo beharko du eskaera egiteko (<https://www.gfaegoitza.net>), eta bertan dagoen «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoen ataria erabili.

10. artikulua. 588 eredutik ondorioztatzen diren itzulketak.

588 ereduaren autolikidazioak itzultzeko kuota ematen badu, zergapekoak ereduari adierazi behar du zein kontutan nahi duen jaso itzulketa hori, eta horretarako (IBAN) Banku Kontuaren Nazioarteko Kodea adierazi behar du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Aldaketak sartzen dira maiatzaren 14ko 308/2014 Foru Aginduaren I. eranskinean –agindu horren bidez bi eredu onartu ziren, 583 eredu –Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Autolikidazioa eta ordainketa zatikatuak–, eta 584 eredu –Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa eta ordainketa zatikatuak–, eta horiek aurkezteko

erak eta prozedurak ezarri zituen-, eta haren ordeztu foru agindu honetan jasotzen den IV. eranskina erabiliko da.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

591 eredua, «Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Zergadunekin egindako eragiketen urteko aitortpena» izeneko, 2013ko ekitaldian eta hurrengoetan zergadunekin egindako eragiketen urteko aitortpena aurkezteko erabiliko da.

2013ko ekitaldiko aitortpena aurkezteko epea 2015eko otsailaren 27an amaituko da.

588 eredua, «Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Jarduera urtariletik urrira bitartean eteteagatik aurkeztutako autolikidazioa» izeneko, erabiliko da jarduera urtariletik urrira bitartean eteteagatik 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera egin beharreko autolikidazioak aurkezteko.

Donostia, 2015eko otsailaren 2a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(943)

I. ERANSKINA



II. ERANSKINA

591 eredua telematikoki aurkezteko erantsi behar den artxiboak bete behar dituen diseinuak.

Eremua	Posizioa	Luzera	Mota	Deskripzioa	Campo	Posición	Longitud	Tipo	Descripción
1	1	9	AN	Jasotzailearen IFZ	1	1	9	AN	Nif del perceptor
2	10	40	AN	Jasotzailearen izena edo sozietate izena	2	10	40	AN	Nombre o razón social del perceptor.
3	50	1	AN	Zenbatekoaren zeinua (0 edo -)	3	50	1	AN	Signo del importe (0 o -).
4	51	12	N	Ordaindutako zenbatekoa euro-zentimotan	4	51	12	N	Importe satisfecho en céntimo de euros.

Eremu alfanumerikoak ezkerretik erretatik jarri behar dira, eskuinaldetik zuriuneak utzita.

Eremu numerikoa, zentimotan, eskuinaldetik erretatik jarri behar da, ezkerretik zeroak jarrita. Adibidez: 123.456,6 idazteko, 000001234560 idatziko da.

III. ERANSKINA



IV. ERANSKINA



t